

Hof-eko (Alemania) unibertsitatera bisita

2009/07/28

Iñaki Hurtado, Mekanika eta Industria Ekoizpenena saileko irakasleak Hof-eko unibertsitatea bisitatu zuen. Bisita hau klaseak emateko irakasleen mugikortasuna sustatzen duen Erasmus programaren barruan egin zen.

Hurtadok unibertsitateko klase batzuetan parte hartu zuen, materialen zientziari buruzko hitzaldi batzuk emanez. Gainera, bisitaren beste helburu bat ikasleen mugikortasunaren markoan bi erakundeek duten hitzarmena indartzea izan zen. Hitzarmen honek ikasleak sei hileko bat eta karrera amaierako proiektu bat bertan egiteko aukera ematen du.

